**ORDEN DEL CONSEJERO DE CIENCIA, UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN, POR LA QUE SE ACUERDA EL INICIO DEL PROCEDIMIENTO PARA LA ELABORACIÓN DEL DECRETO DE ESTRUCTURA ORGÁNICA Y FUNCIONAL DEL DEPARTAMENTO DE CIENCIA, UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN.**

La disposición final primera del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, establece que los Consejeros y Consejeras, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.2 de la Ley de Gobierno, procederán a presentar, en su caso, al Lehendakari, para su aprobación, con anterioridad al 31 de octubre de 2024, los proyectos de reglamentos orgánicos de sus respectivos Departamentos.

En consecuencia, procede responder al mandato que establece la Disposición final primera del Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, y elaborar el proyecto de Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación, de conformidad con la tramitación establecida en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Así, en lo que respecta al Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación, éste es de nueva creación y se consolida con la denominación y áreas dispuestas en el Artículo 17 del Decreto 18/2024, de 23 de junio, así como con lo recogido en las disposiciones adicional décima y adicional decimotercera sobre unidades integradas y creadas con base en dicho Decreto 18/2024.

El artículo 17.1 del citado Decreto 18/2024 asigna al Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación, las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Las facultades que se derivan del Estatuto de Autonomía con relación a la educación superior.
b) Política científica.
c) Impulso y coordinación de la investigación teórica y aplicada.
d) Impulso y coordinación del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación.
e) Gestión del Fondo de Innovación.
f) Centros de investigación cooperativa.
g) Centros de excelencia en investigación.
h) Innovación, con excepción de la innovación en el sector empresarial, a la que se refiere el artículo 10.1.b).
i) Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, las entidades del sector público adscritas o dependientes del Departamento.
j) Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

La disposición adicional décima, integra en el Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación, los órganos y unidades de la Viceconsejería de Universidades e

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 65 40 – Fax 945 01 83 37 – e-mail hhpkidazkaria@euskadi.eus

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T5ZRZ-QY2Z
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** JUAN IGNACIO PEREZ IGLESIAS | 2024/07/26 15:16:22

Investigación del extinto Departamento de Educación, así como crea una Dirección de Servicios en el Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación.

Por su lado, la disposición adicional décimo tercera en su apartado segundo recoge que las unidades y medios materiales y personales de la Viceconsejería de Administración y Servicios del extinto Departamento de Educación se integrarán en la Viceconsejería de Administración y Servicios del Departamento de Educación y en la Dirección de Servicios del Departamento de Ciencia, Universidades e Investigación, a que se refieren los artículos 12 y 17, de conformidad a las funciones que desarrollen y a las que pudieran estar adscritos.

Por otro lado, la regulación del reglamento orgánico del Departamento debe efectuarse de acuerdo con los criterios organizativos consignados en el apartado segundo de la disposición final primera del repetido Decreto 18/2024, de 23 de junio: austeridad, aplanamiento de estructuras, agrupación de áreas funcionales con amplios contenidos, identificación de áreas funcionales staff no estructurales y el máximo aprovechamiento de las tecnologías de la información.

Así pues, el Decreto18/2024, asigna al Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación funciones y áreas de actuación para cuyo ejercicio se propone una estructura organizativa y los ámbitos de actuación que corresponden a cada uno de sus elementos.

Finalmente, quedan adscritas al Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación determinadas entidades del sector público que constituyen una herramienta fundamental para el desarrollo de las políticas que le corresponde impulsar en el ámbito de funciones y áreas de actuación anteriormente señaladas.

Considerando todas las circunstancias anteriormente expuestas, y sobre la base del contenido necesario que debe tener la Orden de iniciación conforme al artículo 13 de la Ley 6/2024, de 30 de junio,

**RESUELVO:**

**Primero. - Objeto de la presente orden y competencia para ordenar la iniciación del procedimiento**.

1.- El objeto de la presente orden es el inicio del procedimiento para la elaboración del proyecto de Decreto de estructura orgánica y funcional del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación para la XIII legislatura.

2.- La competencia para ordenar la iniciación de este procedimiento viene atribuida al Consejero de Ciencia, Universidades e Innovación, en virtud de lo establecido en el artículo 12.1 de la Ley 6/2022, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

**Segundo.- Objeto y finalidad de la norma a elaborar.**

El proyecto de Decreto que se va a elaborar tiene por objeto regular la estructura orgánica y funcional del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación, creado por Decreto 18/2024, de 23 de junio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y se ajustará a los principios inspiradores y a los objetivos previstos en el programa de Gobierno para cada una de las áreas de actuación asignadas al Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación.

**Tercero.- Viabilidad jurídica y material de la norma que se elabora.**

El marco legal de la competencia que se ejercita deriva de lo dispuesto en el art. 10.2 del Estatuto de Autonomía, que confiere a la Comunidad Autónoma de Euskadi la potestad de autoorganización necesaria para la creación, modificación y supresión de órganos, unidades administrativas o entidades que constituyen la administración autonómica, con el respeto de las bases estatales del régimen jurídico de la organización y funcionamientos de las administraciones públicas del artículo 149.1.18 de la Constitución, concretadas en el artículo 11 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Cuarto.- Repercusiones en el ordenamiento jurídico**

1.- El nuevo proyecto de Decreto, en el momento de su aprobación, implicará la derogación expresa de Decreto 71/2021, de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación, el Decreto 39/2022, de 29 de marzo, de modificación del Decreto por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación, así como cuantas otras disposiciones reglamentarias se opongan a lo dispuesto en el Decreto.

2.- En la tramitación del Decreto no se puede obviar lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca que establece la obligación de que las modificaciones de la estructura orgánica vayan acompañadas de la correspondiente modificación de la relación de puestos de trabajo.

**Quinto.- Impacto económico y presupuestario.**

Este proyecto de Decreto tiene incidencia presupuestaria, dado que implica una nueva estructura orgánica departamental, que se promueve desde la integración de estructuras existentes y requiere la generación de nuevas estructuras.

El proyecto de Decreto en sus contenidos será reflejo de criterios de austeridad, aplanamiento de estructuras, agrupación de áreas funcionales con amplios contenidos, identificación de áreas funcionales staff no estructurales y el máximo aprovechamiento de las tecnologías de la información, así como del resto de directrices generales contenidas en el Programa de Gobierno.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, deberá adjuntarse al expediente una memoria de impacto normativo que, de acuerdo con lo que determina la normativa que regula el ejercicio del control económico-normativo en la

Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, verse sobre el impacto económico y presupuestario y sobre la posible incidencia en los presupuestos de las administraciones públicas afectadas así como sobre los beneficios y las cargas administrativas que pueda conllevar la propuesta para la ciudadanía.

**Sexto.- Trámites e informes procedentes.**

De acuerdo con lo dispuesto en el apartado e) del artículo 13.1 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, la Orden de inicio señalará los trámites e informes que se estimen procedentes en razón de la materia y el contenido de la regulación propuesta.

El proyecto de Decreto se exceptúa del trámite de audiencia e información pública, por tratarse de una disposición de carácter organizativo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a lo preceptuado en el artículo 8.5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre.

Asimismo, dado que se trata de una norma meramente organizativa, no es preceptivo ni la evaluación de impacto de género, ni el informe de Emakunde, de conformidad con la Resolución 40/2012, de 21 de agosto, de la Directora de Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno “por el que aprueban las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres”.

En atención a lo indicado, se determinan a continuación los trámites e informes que, en principio, se requieren para la elaboración y aprobación del proyecto de decreto previsto:

1.- Publicación de la Orden de inicio en el tablón de anuncios de la sede electrónica y en Legesarea.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, esta orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Asimismo, la presente Orden se insertará en el espacio colaborativo de conocimiento compartido Legesarea.

2.- Memoria de análisis de impacto normativo.

El artículo 15.3 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece que el órgano competente para la instrucción del expediente elaborará con carácter preceptivo una memoria de análisis de impacto normativo, en los términos y con el contenido previsto en la citada disposición.

3.- Informe jurídico departamental.

Debido a la magnitud y relevancia del proyecto de Decreto, que regula la que va a ser la estructura departamental esta legislatura, así como los cambios que la misma induce respecto del Decreto que regulaba la estructura y funciones del extinto Departamento de Educación, del extinto Departamento de Desarrollo Económico, Departamento de

Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente y de Lehendakaritza, se considera precisa la emisión del informe jurídico departamental, a tenor de lo dispuesto en el artículo 15.4 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

4.- Memoria económica.

Se elaborará una memoria económica en la que se detalle el impacto económico previsto.

5.- Informe de Impacto en la Empresa.

Según lo dispuesto en el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco, es necesaria la emisión de este informe.

6.- Informe de la Dirección de Función Pública.

Según lo dispuesto en el Decreto 8/2021, de 19 de enero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, resulta procedente la emisión de informe por parte de la Dirección de Función Pública.

La idoneidad de la emisión del citado informe reside en la circunstancia de que el Departamento es de nueva creación y supone una nueva estructura de personal de la administración general.

7.- Informes y dictámenes preceptivos de carácter no esencial.

Se solicitarán los siguientes informes de carácter no esencial:

- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, de conformidad con el artículo 14.2.l) del Decreto 73/2021 de 23 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Cultura y Política Lingüística.

- Informe de la Junta Asesora de Contratación Pública, en virtud del artículo 27.1 del Decreto 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 16, dichos informes, de carácter no esencial, se realizarán todos de un modo simultáneo y durante el plazo común de un mes, contado a partir de la publicación en la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del texto de la disposición que cuente con aprobación previa.

8.- Informes y dictámenes preceptivos de carácter esencial.

El artículo 19 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, determina que una vez completado el expediente

de acuerdo con los trámites previstos en los artículos anteriores, deberá requerirse y cumplimentarse los siguientes informes:

- Informe de la Oficina de Control Económico del Departamento de Económica y Hacienda, de conformidad con lo establecido en la Sección Tercera del Capítulo III del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del Páis Vasco.
- Informe de Legalidad del Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco, de conformidad con lo previsto en la Ley 7/2016, 2 de junio, de Ordenación del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

9.- Expediente final y Memoria sucinta del procedimiento.

El expediente final se conformará según lo dispuesto en el artículo 24.1 de la Ley 6/2022. Asimismo, se unirá una memoria sucinta de todo el procedimiento, con el contenido que se señala en los apartados 2 y 3 del citado artículo 24.

10.- Transparencia.

Toda la información de relevancia jurídica que se vaya generando en el transcurso del procedimiento para la elaboración del proyecto de Decreto debe ser publicada en el portal de la normativa vasca Legegunea, en consonancia con lo dispuesto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

11.- Aprobación por el Consejo de Gobierno.

Finalizado el procedimiento de elaboración, el proyecto de Decreto se someterá a la aprobación final por el Consejo de Gobierno, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 27 de la Ley 6/2022.

**Séptimo.- Identificación preliminar de los sujetos y las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la disposición.**

La disposición afectará a altos cargos, personal eventual y personal funcionario del extinto Departamento de Educación, así como a los órganos y entidades del sector público adscritos al Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación.

**Octavo.- Técnica para la traducción o redacción bilingüe.**

La redacción del proyecto de Decreto deberá efectuarse conforme a lo previsto en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013, por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de Ley, Decreto Legislativo, Decreto u Orden.

El sistema que se utilizará para el cumplimento de los dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, será el de traducción por el Servicio Oficial de Traductores (IZO), de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27.3 de la Ley 6/2022 y en el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por

el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

**Noveno.- Tramitación del procedimiento a través de Tramitagune.**

La tramitación del procedimiento se realizará a través de la aplicación informática "Tramitagune", atendiendo a lo dispuesto en los Acuerdos de Consejo de Gobierno de fecha 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las instrucciones de tramitación en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, y de fecha 27 de noviembre de 2012, por el que se aprueban las instrucciones para la tramitación electrónica de determinados procedimientos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

**Décimo.- Remisión de la presente Orden.**

Esta Orden se remitirá a la Dirección de Servicios del Departamento de Ciencia, Universidades e Innovación a los efectos de elaboración y tramitación del procedimiento anteriormente citado.

**Decimoprimero.- Publicación**

La presente orden de inicio será objeto de publicación en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y en el espacio colaborativo Legesarea, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 13.2 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General y en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 28 de diciembre de 2010, por el que se aprueban las instrucciones de tramitación de disposiciones de carácter general.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de julio de 2024.

El Consejero de Ciencia, Universidades e Innovación

JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 65 40 – Fax 945 01 83 37 – e-mail hhpkidazkaria@euskadi.eus

**AGINDUA,** ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZAKO SAILBURUARENA, ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILAREN EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALARI BURUZKO DEKRETUA EGITEKO PROZEDURA HASTEA ERABAKITZEN DUENA.

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu ziren, eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu ziren. Dekretu horren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen duenez, sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, beren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztu beharko dizkiote lehendakariari, horrek onar ditzan, 2024ko urriaren 31 baino lehen.

Ondorioz, Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen duen aginduari erantzun behar zaio, eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektua egin, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapidetzearen arabera.

Hala, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari dagokionez, sortu berria da, eta ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 17. artikuluan xedatutako izenarekin eta arloekin sendotzen da, bai eta 18/2024 Dekretu horretan oinarrituta sortu eta integratutako unitateei buruzko hamargarren xedapen gehigarrian eta hamahirugarren xedapen gehigarrian jasotakoarekin ere.

18/2024 Dekretuaren 17.1 artikuluak honako egiteko eta jardun-arlo hauek esleitzen dizkio Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari:

a) Autonomia Estatutuan goi-mailako hezkuntzari dagokionez ezartzen diren ahalmenak.
b) Politika zientifikoa.
c) Ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatzea eta koordinatzea.
d) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana bultzatzea eta koordinatzea.
e) Berrikuntza Funtsaren kudeaketa.
f) Ikerketa kooperatiboko zentroak.
g) Ikerketako bikaintasun-zentroak.
h) Berrikuntza, enpresa-sektoreko berrikuntza izan ezik, 10.1.b) artikuluan aipatzen baita.
i) Sailari atxikita dauden edo haren mende dauden sektore publikoko erakundeak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.
j) Legeek eta erregelamenduek eman diezazkioten gainerako ahalmenak.

Hamargarren xedapen gehigarriak Hezkuntza Saileko Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzako organoak eta unitateak integratzen ditu Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailean, eta Zerbitzu Zuzendaritza sortzen du Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailean.

**ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA**
Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua

Bestalde, hamahirugarren xedapen gehigarriak bigarren apartatuan jasotzen duenez, desagertutako Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzako unitateak, baliabide materialak eta giza baliabideak Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzan eta Zientzia, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zerbitzu Zuzendaritzan integratuko dira, 12. eta 17. artikuluetan aipatutako moduan, betetzen dituzten eta atxikita egon daitezkeen funtzioen arabera.

Bestalde, Sailaren erregelamendu organikoaren erregulazioa ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoaren bigarren apartatuan jasotako antolaketa-irizpideen arabera egin behar da: austeritatea, egiturak lautzea, eginkizun-arloak eduki zabalekin elkartzea, egiturazkoak ez diren staff funtzio-arloak identifikatzea eta informazioaren teknologiez ahalik gehien baliatzea.

Hala, 18/2024 Dekretuak Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari esleitzen dizkio eginkizunak eta jardun-arloak, eta horiek gauzatzeko antolaketa-egitura bat eta elementu bakoitzari dagozkion jarduera-eremuak proposatzen dira.

Azkenik, sektore publikoko zenbait erakunde Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari atxikita geratzen dira. Erakunde horiek funtsezko tresna dira lehen aipatutako funtzioen eta jardun-arloen eremuan bultzatu behar dituen politikak garatzeko.

Arestian azaldutako inguruabar guztiak kontuan hartuta, eta prozedura hasteko aginduak ekainaren 30eko 6/2024 Legearen 13. artikuluaren arabera izan behar duen edukian oinarrituta, honako hau

**EBATZI DUT:**

**Lehenengoa.-** Agindu honen xedea eta prozedura hasteko agintzeko eskumena.

1.- Agindu honen xedea da hasiera ematea XIII. legegintzaldirako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretu-proiektua egiteko prozedurari.

2.- Prozedura honen hasiera agintzeko eskumena Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari dagokio, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 6/2022 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Bigarrena.- Egin beharreko arauaren xedea eta helburua.**

Egingo den dekretu-proiektuaren xedea da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala arautzea. Sail hori lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez sortu zen (18/2024 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena), eta bat etorriko da Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari esleitutako jardun-arlo bakoitzerako Gobernu Programan aurreikusitako helburuekin eta programa hori argitu duten printzipioekin.

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 65 40 – Faxa: 945 01 83 37 – Helbide elektronikoa: hhpkidazkaria@euskadi.eus

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA
Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua

**Hirugarrena.- Egiten den arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Egikaritzen den eskumenaren lege-esparrua EKaren Autonomia Estatutuaren 10.2 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak bere burua antolatzeko ahalmena izango du administrazio autonomikoa osatzen duten organoak, administrazio-unitateak edo erakundeak sortu, aldatu eta ezabatzeko, betiere Konstituzioaren 149.1.18 artikuluko herri-administrazioen antolaketaren eta funtzionamenduaren araubide juridikoaren estatu-oinarriak errespetatuz. Oinarri horiek Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 11. artikuluan zehazten dira.

**Laugarrena.- Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak**

1.- Dekretu-proiektu berriak, onartzen den unean, berariaz indargabetuko ditu honako hauek: 71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; 39/2022 Dekretua, martxoaren 29koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzen duena, eta Dekretuan xedatutakoaren aurka dauden gainerako erregelamenduzko xedapenak.

2.- Dekretua izapidetzean, ezin da alde batera utzi Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 18. artikuluan xedatutakoa, egitura organikoaren aldaketekin batera lanpostuen zerrenda ere aldatu behar dela ezartzen baitu.

**Bosgarrena.- Ekonomia- eta aurrekontu-eragina.**

Dekretu-proiektu honek aurrekontu-eragina du, sailen egitura organiko berri bat eskatzen baitu, lehendik dauden egiturak integratuz sustatzen dena eta egitura berriak sortzea eskatzen duena.

Dekretu-proiektuak irizpide hauek jasoko ditu bere edukietan: austeritatea, egiturak lautzea, eduki zabaleko egiteko-arloak elkartzea, egiturazkoak ez diren staff egiteko-arloak identifikatzea eta informazioaren teknologiez ahalik eta gehien baliatzea, bai eta Gobernu Programan jasotako gainerako jarraibide orokorrak ere.

Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, arau-eraginari buruzko memoria bat erantsi beharko zaio espedienteari. Memoria horrek, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrola arautzen duen araudiak ezarritakoaren arabera, ekonomia- eta aurrekontu-inpaktuari eta eragindako administrazio publikoen aurrekontuetan izan dezakeen eraginari buruzkoa izan beharko du, bai eta proposamenak herritarrei ekar diezazkiekeen onurei eta administrazio-kargei buruzkoa ere.

**Seigarrena.- Egin beharreko izapideak eta txostenak.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.1 artikuluaren e) letran xedatutakoaren arabera, hasteko aginduak adieraziko ditu proposatutako araudiaren gaia eta edukia kontuan hartuta egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.

Dekretu-proiektua salbuetsita dago entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren antolamendu-

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA
Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua

xedapen bat delako, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Era berean, arau antolatzaile hutsa denez, ez da nahitaezkoa genero-eraginaren ebaluazioa, ez eta Emakunderen txostena ere, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren arabera. Ebazpen horren bidez, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitaratzea xedatzen da, «genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko».

Adierazitakoa kontuan hartuta, jarraian zehazten dira aurreikusitako dekretu-proiektua egiteko eta onartzeko hasiera batean behar diren izapideak eta txostenak:

1.- Hasteko agindua egoitza elektronikoaren iragarki-taulan eta Legesarean argitaratzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko da. Halaber, agindu hau Legesarea ezagutza partekatuaren lankidetza-gunean txertatuko da.

2.- Arau-eragina aztertzeko memoria.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.3 artikuluak ezartzen duenez, espedientea izapidetzeko eskumena duen organoak arau-eragina aztertzeko memoria bat egingo du nahitaez, aipatutako xedapenean aurreikusitako baldintzetan eta edukiarekin.

3.- Sailaren txosten juridikoa.

Kontuan hartuta zer-nolako garrantzia eta garrantzia izango duen legealdi honetako sail-egitura arautuko duen dekretu-proiektuak, eta zer aldaketa eragingo dituen lehengo Hezkuntza Sailaren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eta Lehendakaritzaren egitura eta eginkizunak arautzen zituen Dekretuari dagokionez, beharrezkotzat jotzen da sailaren txosten juridikoa egitea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.- Memoria ekonomikoa.

Memoria ekonomiko bat egingo da, aurreikusitako eragin ekonomikoa zehazteko.

5.- Enpresan duen eraginari buruzko txostena.

Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, txosten hau egin behar da.

6.- Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena.

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA
Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuan xedatutakoaren arabera, egokia da Funtzio Publikoko Zuzendaritzak txostena egitea.

Aipatutako txostena ematea egokia da Saila sortu berria delako eta administrazio orokorreko langileen egitura berria delako.

7.- Funtsezkoak ez diren nahitaezko txostenak eta irizpenak.

Funtsezkoak ez diren txosten hauek eskatuko dira:

- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2.l) artikuluaren arabera.

- Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.1 artikuluaren arabera.

16. artikuluan xedatutakoaren arabera, funtsezkoak ez diren txosten horiek guztiak aldi berean egingo dira, hilabeteko epe komunean, aldez aurreko onarpena duen xedapenaren testua Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

8.- Nahitaezko txosten eta irizpen funtsezkoak.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 19. artikuluak xedatzen duenez, espedientea aurreko artikuluetan aurreikusitako izapideen arabera osatu ondoren, honako txosten hauek eskatu eta bete beharko dira:

- Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluko hirugarren atalean ezarritakoaren arabera.
- Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren legezkotasun-txostena, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legean aurreikusitakoaren arabera.

9.- Azken espedientea eta prozeduraren memoria laburra.

Azken espedientea 6/2022 Legearen 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera osatuko da. Era berean, prozedura osoaren memoria labur bat erantsiko da, 24. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan adierazitako edukiarekin.

10.- Gardentasuna.

Dekretu-proiektua egiteko prozeduran zehar sortzen den garrantzi juridikoko informazio guztia Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu behar da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoarekin bat etorriz.

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA
Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua

11.- Gobernu Kontseiluak onartzea.

Egiteko prozedura amaituta, Gobernu Kontseiluak behin betiko onartu beharko du dekretu-proiektua, 6/2022 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Zazpigarrena.- Xedapenak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik adierazgarrienen aurretiazko identifikazioa.**

Xedapen horrek iraungitako Hezkuntza Saileko goi-karguei, behin-behineko langileei eta funtzionarioei eragingo die, bai eta Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailari atxikitako sektore publikoko organo eta erakundeei ere.

**Zortzigarrena.- Itzulpen edo idazketa elebidunerako teknika.**

Dekretu-proiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dira.

Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren itzulpena erabiliko da, 6/2022 Legearen 27.3 artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

**Bederatzigarrena.- Prozedura Tramitaguneren bidez izapidetzea.**

Prozedura "Tramitagune" aplikazio informatikoaren bidez izapidetuko da, Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian (xedapen orokorrak egiteko prozedurako izapidetze-jarraibideak onartzen dituena) eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakian (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren izapidetze elektronikorako jarraibideak onartzen dituena) xedatutakoari jarraikiz.

**Hamargarrena.- Agindu hau bidaltzea.**

Agindu hau Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara bidaliko da, lehen aipatutako prozedura egin eta izapidetu dezan.

**Hamaikagarrena.- Argitaratzea**

Hasteko agindu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan eta Legesarea lankidetza-gunean argitaratuko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 13.2 artikuluan eta Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakian xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 26a.

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 65 40 – Faxa: 945 01 83 37 – Helbide elektronikoa: hhpkidazkaria@euskadi.eus

**ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA**
Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,

JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS

Donostia kalea, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tel.: 945 01 65 40 – Faxa: 945 01 83 37 – Helbide elektronikoa: hhpkidazkaria@euskadi.eus